

2024 ELKARTEAK ERATZEKO PAUSOAK



zenitro
Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

Nondik hasi?

1 Gutxienez **3 lagunek elkartu** behar dute interes orokorreko eta irabazi-asmorik gabeko proiektu bat sortzeko. Zer jarduera egingen dugun erabakiko dugu.

2 Informazioa bildu, eta **zer forma juridiko hartu erabaki behar da:** Elkartea, Fundazioa, Kirol Kluba, Gazteen Elkartea...



3 Elkarteak **zer eremu geografikotan** jardunen duen zehaztu behar da. Nafarroan ala Estatuan. Eremuaren arabera, erregistro batean edo bestean emanen dugu izena.

4 Webgune hauetan **kontsultatzen eta deskargatzen ahal dira** aurkeztu beharreko **agiriak**:
>> **Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroa**
>> **Estatuko Elkartearen Erregistroa**

NAFARROA



ESPAÑIA



Eta hurrengo pausoa?

5 Agiriak irakurri eta bete. **ESTATUTUAK** idatzi.

6 Elkartea **Eratzeko Saio bat egin**, eta hor:

- a. **SORTZE AGIRIA** onetsi eta sinatu.
- b. Lehen **Zuzendaritza-batzordea** hautatu (behin-behinekoa izanen da, eta gutxienez lehendakari batek eta idazkari batek osatuko dute).
- c. Estatutuak **onetsi eta sinatu**.
- d. Helbide sozialaren gaineko **erantzukizunpeko adierazpena** sinatu.
- e. **Elkartea erregistratzeko tasa** ordaindu (Nafarroan 12 €, eta Estatuan 38,89 €).



Zer eginen dugu horrekin guztiarekin?

7 Nafarroako Elkartearen Erregistroan **aurkeztuko ditugu** agiriak (**asociaciones@navarra.es, 848 42 66 45**), modu telematikoan edo aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren Erregistro bulegoetan eta Herritarren Arretarako bulegoetan, edo dagokion Estatuko Erregistroan.

8 **Identifikazio fiskalaren zenbakia (IFZa)** eskatuko dugu Nafarroako Ogasunean.



Zer gehiago?

9 Elkartearendako **ziurtagiri elektronikoa** eskatu. Elkartea inskribatu eta zuzendaritza-batzordearen ziurtagiria eskuratu ondoren eskatzen da ziurtagiria. Ziurtagiria beharrezkoa da izapideak egin eta jakinarazpenak jasotzeko.



10 **Jarduera ekonomikoak** eginen baditugu, izena eman behar dugu **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZa)**, dagokion Udalean.

11 **ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA** sinatu behar da.



12 Borondatezko langileak badituzue, badituzue, kontratatu **ISTRIPU-ASEGURU** bat haiendako.

Zer betebehar administratibo ditu Elkarte batek?

- **Ondasunen inbentarioa, eta elkartekideen, kontabilitatearen eta akten liburuak** eduki behar dira.
- Urtean **Ohiko Batzar** bat egin behar da.
- **Elkarteen erregistroko informazioa** egunean izan behar da.
- Adin txikikoekin lan eginen badugu, borondatezko langileen edo elkarteko langileen **Sexu-izaerako delituen ziurtagiria** izan behar dugu.
- Egiten diren jardueren arabera, **zergak ordaindu edo baimenak eskatu** behar dira.

Eta gero zer?

Behin Elkartearen Erregistroan izena eman ondoren (Nafarroan edo Estatuan), **eskatzen ahal dugu Iruñeko Udaleko Herritarren Erakundearen Udal Erroldan izena emateko**. Horretarako, elkartearen egoitzak Iruñean egon behar du, edo bestela, elkarteak Iruñean egin behar ditu jarduerak. Agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Izena emateko **orria**.
- Elkartearen Nafarroako Gobernuaren Elkartearen Erregistroan/Estatuko elkartearen erregistroan **inskribatu izanaren ohar soila**, edo izen-ematea onesten dela adierazten duen ebazpenaren kopia.
- Elkartearen indarreko **estatutuen kopia**, Nafarroako Gobernuak ikus- onetsita.
- Elkartearen **IFZaren kopia**.

Agiriak Iruñeko Udalaren Erregistroetan, egoitza elektronikoan eta erregistro elektronikoan **aurkezten ahal ditugu**. Informazio gehiago bildu eta [inprimakia deskargatzeko](#).



Nora jotzen ahal duzue laguntza eta informazio bila?

Iruñeko Udalaren **ZENTRO elkarlanerako gunera**: Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorraren barruan dago, **Kondestablearen jauregiko** 2. solairuan (Kale nagusia 2, 31001, Iruña). Zerbitzu hauek eskaintzen dituzte bertan.

PIBZ. Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Baliabideei eta dirulaguntzei buruzko informazioa ematen dute. Kartelak eta fotokopiak egiten ahal dira, gelak uzten dituzte, ordenagailuak eta proiektoreak erabili eta maileguan eskatzen ahal dira, etab. Liburutegi bat ere badago, asoziazionismoan eta partaidetzan espezializatua.

informacion.participacion@pamplona.es ☎948 420 266

Lege-aholkularitza. Partaidetzaren eta asoziazionismoaren inguruko informazioa, orientabideak, aholkularitza, prestakuntza eta trebakuntza eskaintzen dute. Elkarteak eratzeko laguntza ematen dute.

asesoria.participacion@pamplona.es ☎948 420 266

HPDZ. Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua. Elkartea bakoitzari neurrira egokitutako laguntza ematen dute. Dirulaguntzen inguruko informazioa ematen dute, erraztu egiten dute elkarteak eta Iruñeko Udalaren arteko harremana, elkarteak proposamenak biltzen dituzte, etab.

servicio.dinamizacion@pamplona.es ☎948 420 464

Plaza On. Boluntarioendako Iruñeko Udaleko Zerbitzua

Horra jo behar da elkarteetan edo proiekturen batean boluntario aritzeko, bai eta elkarteak jardueretarako langile boluntarioak eskatzeko ere.

plazaon@pamplona.es ☎948 420 493

Iruñeko Udalak elkarteendako duen webgunearen bidez ere biltzen ahal duzue informazioa:

<https://asociaciones.pamplona.es/eu/>

**Zorte on zuen proiektuarekin!
Zain izanen gaituzue!**

